



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/03/27

BERAKO UDALA

herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus  
bera@bera.eus

## OSOKO BILKURAKO AKORDIOA ACUERDO DE PLENO

JASOTA UZTEN DUT, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduen 206. artikularen salbuespenarekin, 2026ko martxoaren 24an Udalak egindako osoko bilkuran, ondoan eta osoki idatzirik dagoen akordioa onartu zuela:

### ---“6. "GURE MENDIA" MUGAZ GAINDIKO ELKARTEAN SARTZEA.

Alkateak “Gure Mendia” proiektuaren historia laburbildu du.

2016an, Hego Lapurdi Hirigune Elkargoak Mendia/Mugaz gaindikotasuna batzorde bat sortu zuen. Batzordeak Hego Lapurdiko mendiguneetan zenbait lanek eramandako proiektu egituratzaileak biltzen ditu (antolaketak, turismo eta aisialdi jarduerak, ondarearen eta honen baliabideen balorizazioa, erabilera anitzaren kudeaketa).

2020. urte hondarrean, Hego Lapurdi eremuko mendiko udalerrietako hautetsiek ekimen hori berpiztu dute, Hegoaldeko udalak ere sarraraziz 2021. urte hastapenean. “Gure Mendia” deitutako lantaldea Hego Lapurdi eskualdeko mugaz gaindiko mendiguneen kudeaketa eta antolaketari buruzko prospektiba bateratu eta trukaketa lekua bilakatu da.

Gure Mendia ekimena eta elkarrekin lan egiteko gogoia indartu dute 2021eko otsailean Hego Lapurdiko mendiguneetan zabaldu ziren suteek.

2021eko udaberrian eramandako lan baten harira, udal bakoitzaren eta kolektiboaren xedearen diagnostikoa egina izan da mendigune horien etorkizunari buruz, gai bat baino gehiagoren ikuspegitik: artzaintza, oihana, erabilera anitza, bioaniztasuna edota ondarea.

HAGO CONSTAR, con la salvedad del art. 206 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, que en la sesión que el Pleno del Ayuntamiento celebró el día 24 de marzo de 2026 adoptó el acuerdo cuyo texto íntegro se transcribe a continuación:

### 6. INCORPORACIÓN A LA ASOCIACIÓN TRANSFRONTERIZA “GURE MENDIA”.

El alcalde ha resumido la historia del proyecto “Gure Mendia”.

En 2016, la Mancomunidad de Iparralde creó una comisión de Montaña/Transfronteriza. La Comisión engloba proyectos estructurantes llevados a cabo por diferentes trabajos en los macizos de Lapurdi (organización, actividades turísticas y de ocio, valorización del patrimonio y sus recursos, gestión del uso múltiple).

A finales de 2020, los electos de los municipios de montaña de la zona de Lapurdi Sur han reavivado esta iniciativa, incluyendo a los ayuntamientos de Hegoalde a principios de 2021. El grupo de trabajo denominado “Gure Mendia” se ha convertido en un lugar de prospectiva conjunta e intercambio sobre la gestión y organización de los macizos transfronterizos en la región de Lapurdi Sur.

La iniciativa Gure Mendia y las ganas de trabajar juntos se han visto reforzadas por los incendios declarados en febrero de 2021 en las zonas de montaña de Lapurdi.

En el marco de un trabajo llevado a cabo en primavera de 2021, se ha realizado un diagnóstico de la misión de cada ayuntamiento y del colectivo sobre el futuro de estos macizos desde la perspectiva de diferentes temáticas: pastoreo, bosque, uso múltiple, biodiversidad



BERA

ERABAKIA GURE MENDIA/ACUERDO - SEFYCU 298652

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADNK MPDX 22UQ 2R3D

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

3tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/03/27

Denen artean gauzatzeko lehenasunezko ekintza batzuek identifikatuak eta hedatuak izan dira 2021 eta 2025 artean. Euskal Hirigune Elkargoko Mendia batzordeak udalak ekintza horiek eramaten laguntzen ditu. Honakoak egiteko besteak beste:

- Sute ondoko birlandatzeetarako Laguntza Funtsak aurkezteko laguntza (2021).
- Suteen prebentzioaren protokoloa laguntzea suprefeturarekin (2022-2023).
- Mugaz gaindiko artzaintzaren diagnostikoa POCTEFA mikroproiektuen funtsari eta Euskal Elkargoko FSIT funtsari aurkezteko laguntza (2023).
- Txostenak DFCI Funts Berdeari aurkezteko laguntza (2023).
- Kirol ekitaldiak udalen artean eskatzeko protokolo bat idaztea (2025).

Horrela, Gure Mendia proiektu kolektibo baten inguruan mintzatzeko galtzarra bihurtzen da, taldeak aipatu nahi dituen gaiei buruzko esperientziak eta argibideak trukatzeko gunea. Eztabaidatzeko lekua ere bihurtu da. Mendiguneen orekari eragiten dioten gai eta proiektuei buruz denen arteko erabakiak hartzeko bidea eskaintzen du.

Alkateak 2024tik goitik Gure Mendia taldean eramandako trukaketen berri eman dio udalbatzarrari, horren ekintza erroztatzeko bidea eskainiko lukeen legezko egitura bat proposatzeko asmoz.

Frantziako uztailaren 1eko 1901 legepeko elkarte bat sortzea proposatua da, udal hauek bilduz: Ainhoa, Azkaine, Baztan, Bera, Biriatu, Ziburu, Etxalar, Senpere, Sara, Urdazubi, Urruña eta Zugarramurdi.

Araudien proiektua helarazi zaio udalbatzarrari.

Gaia eztabaidatu ondoren, **aho batez**

y/o patrimonio.

Algunas acciones prioritarias de ejecución conjunta han sido identificadas y extendidas entre 2021 y 2025. La comisión de Montes de la Comunidad de Aglomeración del País Vasco ayuda a los ayuntamientos a llevar a cabo estas acciones. Entre otras, para:

- Ayuda para la presentación de Fondos de Ayuda para repoblaciones post-incendios (2021).
- Apoyo al protocolo de prevención de incendios con la Subprefectura (2022-2023).
- Ayuda para la presentación del diagnóstico de pastoreo transfronterizo al fondo de microproyectos POCTEFA y al fondo FSIT del País Vasco (2023).
- Apoyo a la presentación de informes al Fondo Verde DFCI (2023).
- Redacción de un protocolo de solicitud de eventos deportivos entre ayuntamientos (2025).

Así, Gure Mendia se convierte en una herramienta para hablar de un proyecto colectivo, un espacio para intercambiar experiencias y aclaraciones sobre los temas que el grupo quiere comentar. También se ha convertido en un lugar de debate. Permite tomar decisiones conjuntas sobre temas y proyectos que afectan al equilibrio de los macizos montañosos.

El alcalde informa a la Corporación de los intercambios llevados en el grupo Gure Mendia desde 2024, con el fin de proponer una estructura legal que permita enraizar su acción.

Se propone la creación de una asociación sujeta a la ley francesa 1901, de 1 de julio, que agrupa a los ayuntamientos de Ainhoa, Azkaine, Baztan, Bera, Biriatu, Ziburu, Etxalar, Senpere, Sara, Urdazubi, Urruña y Zugarramurdi.

Se ha dado traslado del proyecto de estatutos al Pleno.

Debatido el asunto, **por unanimidad SE**



BERA

**ERABAKIA GURE MENDIA/ACUERDO - SEFYCU 298652**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA ADNK MPDX 22UQ 2R3D

3tik 2 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2026/03/27



herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus  
bera@bera.eus

## ERABAKI DA:

1. Ainhoa, Azkaine, Baztan, Bera, Biriatu, Ziburu, Etxalar, Senpere, Sara, Urdazubi, Urruña eta Zugarramurdiko udalak biltzen dituen mugaz gaindiko GURE MENDIA elkarte sortzeko proposamena ontzat ematea.

2. Proposatutako elkartearen araudiak ontzat ematea.

3. Alkate jaunari, Aitor Elexpuru Egañari, ematea elkartearen sortzea jarraitzeko ardura.

4. Biltzar Nagusian Berako udala ordezkatzeko duten 2 kide hauek izendatzea: Aitor Elexpuru Egaña eta Francisco Larrechea Lazcano.

Beran, dokumentu honen sinadura digitalaren egunean.

Idazkaria.

## ACUERDA:

1.- Aprobar la propuesta de creación de la asociación transfronteriza GURE MENDIA que agrupa a los ayuntamientos de Ainhoa, Azkaine, Baztan, Bera, Biriatu, Ziburu, Etxalar, Senpere, Sara, Urdazubi, Urruña y Zugarramurdi.

2.- Aceptar las normas (estatutos) de la asociación propuestas.

3.- Encomendar al Sr. alcalde, Aitor Elexpuru Egaña, el seguimiento de la creación de la Asociación.

4.- Designar a los siguientes 2 miembros en representación del Ayuntamiento de Bera en la Asamblea General: Aitor Elexpuru Egaña y Francisco Larrechea Lazcano.”-----

En Bera, en la fecha de la firma digital del presente documento.

El secretario.



BERA

Egiatapen-aseguru kodea: 3AAA ADNK MPDX 22UQ 2R3D

**ERABAKIA GURE MENDIA/ACUERDO - SEFYCU 298652**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

3tik 3 orrialdea